

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZALDUONDOKO UDALA

#### Landa finkak errentan emateko lehiaketa

Alkatetza honen 2020ko abenduaren 28ko 156/2020 Ebazpenarekin bat etorriz, iragarki honen bidez dei egiten da ondoko landa finka hauek errentan emateko lehiaketarako:

1. Erakunde esleitzaila: Zalduondoko Udala.

2. Kontratuaren xedea: landa finka hauek errentan ematea:

Lote bakarra: 433, 360 eta 359 zenbakiko landa finkak, Maduran kokatuak. Azalera: 31.859 m<sup>2</sup>.

Lizitazioa errentagai diren finka guztiengatik izan behar da. Ez dira onartuko finka batengatik edo zenbait finkarengatik bakarrik aurkezten diren eskaintzak.

3. Esleipen prozedura: irekia.

4. Lizitazioaren prezioa: 520 euro urtean, eta gehiago eskainita hobetu ahal izango da.

5. Esleitzeko era: lehiaketa.

6. Kontratuaren iraupena: lau urte.

7. Bermeak. Behin betikoa: esleipen zenbatekoaren ehuneko 5.

8. Agiriak eta argibideak eskuratzea. Erakundea: Zalduondoko Udala. Telefonoa: 945 314534; faxa: 945 314534; helbide elektronikoa: [azalduondo@ayto.araba.eus](mailto:azalduondo@ayto.araba.eus).

9. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea.

a) Eskaintzak aurkezteko epea: hamabost egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Egun hori laneguna ez bada udalean, hurrengo lanegunera atzeratuko da. Lanegunak: astearteak, asteazkenak eta ostegunak.

b) Aurkeztu behar diren agiriak: baldintza ekonomiko eta administratiboen agirian adierazitakoak.

c) Lekua: udaletxean, 9:00etatik 14:00ak arte.

10. Esleipenerako irizpideak:

– Eskaintza ekonomikoa: 70 puntu, gehienez.

– Lizitzailearen jardueraren helbidea: 10 puntu, gehienez.

– Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerarako lehen establezimenduaren instalazioa: 5 puntu, gehienez.

– Lizitzailearen esperientzia: 5 puntu, gehienez.

– Nekazaritza ekologikoa: 10 puntu, gehienez.

11. Eskaintzak irekitzea: Zalduondoko udaletxea.

a) Eguna: proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo laugarren egun baliodunean.  
Egun hori laneguna ez bada udalean, hurrengo lanegunera atzeratuko da.

b) Ordua: 10:30.

Zalduondo, 2020ko abenduaren 28a

*Alkatea*

*GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE*